PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

º

Xedea: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak sustatutako INDUSTRIA BERRIAREN SPRI HIZTEGIA eguneratu eta mantentzeko lanak

Espediente zk.: [2025007]

1.- KONTRATATUKO DEN LANAREN XEDEA

Plegu honen xedea da SPRI, Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak sustatutako INDUSTRIA BERRIAREN SPRI HIZTEGIA eguneratu eta mantentzeko lanak kontratatzeko baldintza teknikoak finkatzea.

2.- PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIAK

2.1 Industria Berriaren SPRI Hiztegia

Industria Berriaren SPRI Hiztegia 2018.urtean abiarazitako proiektua da, industria-sektorearen alderdirik aurreratuenari dagokion hiztegi espezializatua garatzeko asmoz. Sektore hori etengabe ari da kontzeptu berriak sortzen eta zaharrak eguneratzen. Horregatik, ezinbestekoa da berrikuntza horiei guztiei jarraipena egitea eta hala kontzeptuen edukia nola kontzeptu horiek izendatzeko terminoak ondo finkatzea eta baliabide batean biltzea eta argitaratzea. Hartara, modu batean edo bestean Industria Berriaren alorrean dihardugunok lan-tresna berri bat dugu, eguneroko zereginetan lagungarria izango zaiguna.

Hiztegi hau garatzerakoan SPRIk bere alea jarri nahi izan du euskararen normalizazio-prozesuan, Industria Berriaren alorrean duen sustatzaile-rola hizkuntzaren eremura ere ekarrita. Euskarazko terminoen sorkuntzan bizkor ibili ezean, beste hizkuntza batzuetatik jasotako terminoak dira gailentzen direnak, batez ere ingelesetik datozenak. Batzuetan ezinbestekoa eta zuzena da euskarazkoak ez diren termino horiek erabiltzea. Beste batzuetan, ordea, gaztelaniazko edo ingelesezko terminoak erabiltzen diren bezain natural eta eroso erabil daitezke euskarazkoak, baldin eta horietara iristeko modua badugu eta baldin eta horiek erabiltzeko ahalegina egiten badugu hasieratik.

Hau izan da Hiztegia sortu zenetik hona jarraitu den lan-ildoa.

2.2 Helburuak

Horrenbestez, Industria Berriaren Hiztegiaren helburuak dira:

- Jada sortuta dauden euskarazko terminoen zuzentasuna eta egokitasuna aztertzea edo termino berriak proposatzea.
- Oraindik euskarazko ordainik ez duten kontzeptuak izendatzeko euskarazko terminoak sortzea, erabiltzaileak aukera hori ere eskura izan dezan.
- Hiztegian jasotako kontzeptuen ordainak eta definizioak hiru hizkuntzatan ematea: euskara, gaztelania eta ingelesa.

2.3 Hiztegiaren ezaugarri orokorrak

SPRI Hiztegiari ekitean, helburu bat genuen: 4.0 industriari edo Industria Berriari, oro har, buruzko oinarrizko terminologia fidagarri, landu eta eguneratua eskaintzea modu zehatz eta argian.

Hiztegi honek SPRI Taldean erabiltzen dugun dokumentazioa du oinarri; horregatik, esan daiteke erabileran oinarritutako hiztegia dela. Eguneroko lanean erabiltzen ditugun terminoak biltzen ditu, eta alor honen inguruko zalantzak argitzen lagundu nahi du.

SPRI Hiztegiak **1.083 kontzeptu** ditu, eta kontzeptu guztiek euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko ordainak dituzte; guztira, **4.341 termino**. Hiztegian bilaketa bat egin nahi dugunean, hiru hizkuntza horietako edozeinetatik abia gaitezke. Hizkuntza kontuan hartuta, hau da termino-kopuruaren banaketa (2024ko uztaileko datuak):

- **Kontzeptuak**
    - Guztira: 1.083
    - Definizioa dutenak: 431
- **Terminoak**
    - Guztira: 4.341
    - Euskarazkoak: 1.444
    - Gaztelaniazkoak: 1.416
    - Ingelesezkoak: 1.481
- **Estekak**
    - Zenbat kontzeptutan: 195
    - Zenbat esteka, guztira: 263
- **Bidaltze-oharrak:**
    - Zenbat kontzeptutan: 305
    - Zenbat bidaltze-ohar, guztira: 459

3.- EGIN BEHARREKO LANAK

Azken urteetako lanari jarraipena emanaz, 2025.urtean Industria Berriaren Hiztegian 150 kontzeptu berri txertatzea, hiru hizkuntzatan. Horretarako:

- 150 kontzeptu berriren lanketa teknikoa, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
    - SPRIk emandako itzulpen-memoriak erabiliko dira terminoak erauzteko.
    - Baita SPRIren eta SPRI Taldeko gainerako erakundeen webguneak ere.
    - SPRIrekin lotutako beste erakunde batzuen webguneak ere erabiliko dira, hala nola: BRTA edo BAIC.
- Kontzeptu berriak kanpo-iturrietako informazioarekin osatzea.
- Hiztegiaren interfazearen bidez jasotako proposamen eta iradokizunei erantzutea.
- Terminoen bateratze-lana abiaraztea (terminoak iturri desberdinetatik jasotzen direnez, inkoherentziak egon daitezke terminoen sorreran eta erabileran).
- Kontzeptu berriak onlineko hiztegian txertatzea, unean uneko diseinua eta egitura errespetatuz.
- Hiztegia zerbitzari baten mantentzea, honako berme hauekin:
    - Hiztegia urteko egun guztietan eskuragarri izango dela.
    - Zerbitzaria etengabe monitorizatuta egotea.
    - Arazo teknikoak ekiditeko beharrezko neurriak hartzea eta arazorik gertatuz gero, kontingentzia-plan bat izatea eta aplikatzea.
- Proiektu osoaren kudeaketa eta koordinazioa 2.2 puntuan zehaztutako helburuak uneoro kontua hartuz.

4.- LANTALDEA

4.1 Osaera

Lantaldea, enpresa esleipendunak berme osoz lehen deskribatutako lan guztiak eta adierazitako zerbitzuak asetzeko beharrezkotzat jotzen dituen profesionalez osatuko du.

4.2 Proiektuari atxikitutako profilak

Lana gauzatuko duten profesionalek adierazitako lanak behar bezala egiteko eta lortu nahi diren helburuak lortzeko beharrezko trebakuntza eta esperientzia izango dituzte. Bereziki, honako hauek baloratuko dira:

- Honen antzeko xedea duten proiektuetan parte hartu izana.
- Esperientzia agiri honetan planteatutakoaren antzeko lanak diseinatzen eta garatzen.
- Taldeak gai izan behar du zerbitzua emateko, aipatutako helburuak lortzeko.
- Zerbitzua ondo betetzeko, taldea gutxienez hiru (3) kidek osatuko dute, eta honako profil hauek izan beharko dituzte:
    - **Proiektuaren koordinatzailea:** Lizentziatua edo gradu-titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta, gutxienez, zortzi (8) urteko esperientzia izan beharko du deskribatutako lanak garatzen.

      Proiektuko buru eta hura koordinatzeko eta bezeroarekin eta lantaldearekin harremanetan egoteko gai izan beharko du, gaitasun komunikatibo eta proaktiboarekin. Halaber, proiektuaren ikuspegi orokorra izango du, bera izango da SPRIrekin harremana izango duena eta proiektuaren nondik norakoak azalduko dituena.

    - **Proiektuaren zuzendari teknikoa:** Lizentziatua edo gradu-titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta, bost (5) urteko esperientzia izan beharko du deskribatutako lanak garatzen.

      Hiztegiaren arlo teknikoaz arduratuko da, terminoen erauzketatik hasi eta kontzeptuak hiztegian txertatu eta argitaratu bitarteko prozesu osoaren zuzendaritza izango duena.

    - **Lexikografian aditua:** Lizentziatua edo gradu-titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta, bost (5) urteko esperientzia izan beharko du hiztegigintza lanetan.

    - **Itzultzailea:** Lizentziatua edo graduaren titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta bost (5) urteko esperientzia izan beharko du itzultzaile lanak garatzen.

    - **Hizkuntza-zuzentzailea:** Lizentziatua edo gradu-titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta bost (5) urteko esperientzia izan beharko du hizkuntza-zuzentzaile lanak garatzen.

    - **IKT aditua:** Informazio eta Komunikazioaren teknologiako ingeniaritza lizentzia edo graduaren titulu akademiko ofiziala izan beharko du, eta, gutxienez, bost (5) urteko esperientzia izan beharko du web guneen diseinu, eguneraketa eta mantentze zerbitzuetan.

Ulertuz lantaldeko kide batek, deskribatutako profil hauetako bat baino gehiago bete ditzakeela, beti ere aipatutako profil guztietatik gehienez hiru bete ahal izango dituela pertsona bakar batek.

Aurrekoari kalterik egin gabe, lantaldeak kide gehiago izatea proposatu daiteke eta modu positiboan baloratu daiteke.

Proiektuan parte hartzeko proposatzen diren pertsonen euskarazko hizkuntza gaitasunak altua izan behar du (gutxienez, hurrengo mailako ezagutza: EGA, PL·3 edota C1), bai ahoz zein idatziz.

Kontratuari atxikitako langileak beren-beregi enpresa esleipendunaren mende egongo dira. Ez dute inola ere lan-, kontratu- ala funtzionario-harremanik edo antzekorik izango Eusko Jaurlaritzarekin, SPRIrekin eta/edo horiek kide diren sozietateekin, ez kontratuaren indarraldian, ez eta kontratu hori amaitutakoan ere

5.- LANEN JARRAIPENA

SPRI eta enpresa esleipendunari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonak izendatzea. Jarraipena lanaren hasieran eta SPRIk eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da.

6.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

- Kontratu honen xede diren lanak burutzeko, bermatzeko eta haien jarraipena egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

- Enpresa esleipendunak egin beharreko lanak egiterakoan erabili beharreko irudi korporatiboa SPRIko arduradunak ezarritakoa izango da.

- Lizitazio honetan jasotzen diren lanak egiteko lan-hizkuntza euskara izango da, bai idatziz zein ahoz. Beraz, aurkeztu beharreko proposamenak euskaraz aurkeztu behar dira..